



## DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2023

### **TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA**

1. MEC 2023. Merkataritza-establezimenduak eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzu jakin batzuk modernizatzeko laguntzak..... 2
2. Merkataritzako bulego teknikoen funtzionamendurako laguntza-programa (MBT 2023-2024) ..... 4
3. Hiri merkataritzaren lankidetzeta, dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako laguntza-programa - HIRIGUNE 2023..... 6
4. «Euskadi Bono-Comercio / Euskadi Bono-Denda», Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-sektoreko establezimenduetan kontsumoa suspertzeko programa ..... 8
5. «Funts Teknologikoa, Euskal Autonomia Erkidegoan merkataritza modernizatzeko programa». 2023ko Funts Teknologikoa ..... 10
6. Turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko laguntza-programa – TMS 2023 ..... 12
7. Lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzen programa –PTT 2023..... 14
8. Ekintzailetzarako eta turismo-enpresen lehiakortasunaren hobekuntzarako laguntzak - EMET 2023..... 17



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**MEC 2023. Merkataritza-establezimenduak eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzu jakin batzuk modernizatzeko laguntzak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2023ko ekainaren 13koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bitartez merkataritza-establezimenduak eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzu jakin batzuetako establezimenduak modernizatzeko laguntza-programa arautzen baita eta horren deialdia egiten baita 2023ko ekitaldirako (MEC). (2023ko ekainaren 19ko EHAA, 115. zenbakia)

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/06/2302899e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

**Helburua:**

Helburua da EAeko merkataritza-establezimenduak eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzu jakin batzuetako establezimenduak moderniza daitezzen eta energia-kontsumoaren efizientzia hobez dezaten bultzatzea, berrikuntzaren bidez; oinarri teknologiko eta eko-efizienteko prozesuak ezartzea, eta merkataritza-jarduerarekin edo zerbitzu jakin batzuekin lotutako kudeaketa-tresnak, azpiegiturak eta ekipamenduak hobetzea, kalitate eta lehiakortasun handiagoa lortzeko.

**Hartzaileak:**

Norberaren konturako langileak edo autonomoak, sozietate zibilak eta ondasun-erkidegoak, mikroenpresak eta enpresa txikiak, baldin eta beren jarduera nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako kaleko establezimendu fisikoetan egiten badituzte.

**Aurrekontua:**

4.050.000 euro

**Betekizunak:**

- Laguntza-eskaeraren xede den kaleko establezimendu fisikoaren jarduera ekonomikoak eta haren egoitza sozial eta fiskalak EAEn egon behar dute.
- Agindu honen 5. oinarrian jasotako ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafe edo multzoren batean kokatutako jarduera batean aritzea eta alta emanda egotea eskabidearen egunean.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea laguntza emateko ebazpena, emateko eta likidatzeko ebazpena edo likidazio-ebazpena eman aurretik.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Hauek izan dira 2023ko deialdiaren helburuak:

Hasierako kreditua		4.050.000,00 €			
	Exekutatzea (%)	% 79	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
<b>Jasotako eskaera kop.</b>		1483	130	832	521
<b>Emanak</b>	% 78,83	1169	104	661	404
	Emandakoaren batezbestekoa	2.745,24 €	2.932,42 €	2.565,62 €	2.990,92 €
	Emandako kopurua	3.209.180,99 €	304.971,92 €	1.695.876,34 €	1.208.332,73 €
	Gerakina	840.819,01 €			
<b>Ezetsiak</b>		314	26	171	171

Aurrekontu-exekuzioa hasierako kredituaren % 79 izan da; erantzun handia izan du (1.483 eskaera jaso dira), eta gustura geratu da merkataritza-banaketa sektorea (diruz lagundu daitezkeen bi lerroen artean emandako batezbestekoa: 2.168,38 €/emandako eskaera).

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspen</u>	<u>Emaitza</u>
	<u>a</u>	
Laguntza jaso duten merkataritza-establezimenduen kopurua	1.760	1.483



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Merkataritzako bulego teknikoen funtzionamendurako laguntza-programa (MBT 2023-2024)**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2023ko abuztuaren 29koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, Merkataritzako Bulego Teknikoen funtzionamendurako 2023 eta 2024ko ekitaldietarako laguntza-programa arautzen eta iragartzen duena (MBT 2023-2024). (2023ko irailaren 5eko EHAA, 169. zenbakia)

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/09/2304119e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea honako hau da: Merkataritzako Bulego Teknikoen funtzionamendua sustatzeko dirulaguntzak ematea, 2023. eta 2024. urteetarako. Bulego horien bidez, langile kualifikatuek laguntza-zerbitzua emango diete, doan, merkataritza-banaketaren sektore osoari eta sektoreko erakundeei, generoaren, jasangarritasunaren eta eraldaketa digitalaren ikuspegia kontuan izanda.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-exekuzioa eta erabilgarritasuna eta inpaktu soziala. (Dirulaguntzen programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo minorizatuen arteko berdintasuna sustatzeko eta desberdintasunak ezabatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere).

## Aurrekontu-exekuzioa:

Ordainketa-kreditua: 1.600.000 euro / Konpromiso-kreditua: 400.000 euro.

Guztira emandako dirulaguntza: 1.982.160,66 euro.

- Araba: 8 bulegori eman zaie - 314.367,60 euro.
- Gipuzkoa: 21 bulegori eman zaie - 840.000,00 euro.
- Bizkaia: 21 bulegori eman zaie - 827.793,06 euro.

Lehiakortasuna eta berrikuntza hobetzeko deialdia da, eta aukera ematen du eremu bakoitzeko saltokiei zuzeneko aholkularitza emateko, sailaren politiken transmisioari dagokionez.

Lehiaketa-prozeduraren bidez emango dira laguntzak, eta genero-ikuspegia proiektuan txertatuta dagoen ikustea izango da balioesteko puntuetako bat.

Bulegoaren ekintza-lerroen artean egon behar dute hauek: garapen jasangarriarekin edo energia-efizientziarekin lotutako estrategiak garatzea, baita autokontsumorako eguzki-energia fotovoltaikoa ezartzea sustatzen duten energia komunitateak sustatzea ere.

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Eraitza</u>
Ezarritako bulego kopurua	50	50



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Hiri merkataritzaren lankidetza, dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako laguntza-programa - HIRIGUNE 2023**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2023ko ekainaren 13koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, Hiri Merkataritzaren Lankidetza, Dinamizazio eta Lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako Hirigune 2023 laguntza-programarako arauak ezarri eta deialdia egiten duena 2023ko ekitaldirako (2023ko ekainaren 20ko EHAA, 116. zk.).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/06/2302920e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da merkataritza-elkarteen jarduera bultzatzeko 2023ko laguntzak arautzea, hiri-merkataritzaren lankidetza, dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzeko, modu horretan merkataritza-sektorea biziberri dadin.

Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-elkarteen arteko lankidetza bultzatu nahi da, udal-inguruneak hiri-ekonomiako gune gisa balioetsiko dituzten zona-estategiak garatzeko, udal-merkatarien elkarteei, elkarte mistoei edo hiri-merkataritzako plataforma, elkarte edo elkarteei zuzendutako laguntzen bidez.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-exekuzioa eta erabilgarritasuna eta inpaktu soziala. (Dirulaguntzen programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo minorizatuaren arteko berdintasuna sustatzeko eta desberdintasunak ezabatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere).

Aurrekontu-exekuzioa: Ordainketa-kreditua: 1.850.000 euro

Eskaera:

- Elkarte eskatzaileen kopurua: 77 elkarte

- Aurkeztutako zenbatekoa: 2.724.606,73 euro

Onartutako zenbatekoa: 2.574.718,00 euro

Kalkulatutako zenbatekoa: 2.214.764,68 euro

- Diruz lagundutako elkarte kopurua: 75 elkarte

- Guztira emandako dirulaguntza: 1.850.000,00 euro

- Ehunekoa: % 83,53



## 6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Dirulaguntzaren onuradun izan diren zonako elkarteak:	77	<b>75</b>



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**«Euskadi Bono-Comercio / Euskadi Bono-Denda», Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-sektoreko establezimenduetan kontsumoa suspertzeko programa**

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko urriaren 3koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena. Agindu honen bidez, «Euskadi Bono-Comercio / Euskadi Bono-Denda» programa arautzen eta iragartzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko saltoki txikia suspertzeko eta hiriko merkataritza-jarduerarekin lotura duten merkataritza- eta zerbitzu-sektoreko establezimenduetan kontsumoa sustatzeko. (2023ko urriaren 10eko EHAA, 194. zenbakia)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/10/2304639e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

«Euskadi Bono-Comercio / Euskadi Bono-Denda» programaren helburua da: Euskal Autonomia Erkidegoko enpresaburu autonomoek, mikroenpresek eta enpresa txikiek txikizkako merkataritza-establezimenduetan ondasunak kontsumi eta zerbitzuak eman daitezen sustatzea eta hiriko merkataritza-jarduerarekin zerikusia duten zerbitzuak eman daitezen sustatzea.

Horretaz gain, beste helburu hauek ere baditu:

- Hiriko merkataritza-jarduerarekin lotura duten merkataritzako eta zerbitzuen sektoreko enpresaburu autonomoei eta mikroenpresa eta enpresa txikiei indartzen eta sendotzen laguntzea.
- Eskaria estimulatuta, herritarrei eta enpresa-sareari laguntzea, horiengan oinarritzen baitira merkataritza-sektorea eta hiriko merkataritza-jarduera.
- Hiriko merkataritza-jarduera dinamizatzea, hark udalerrian eta eskualdean duen eragina sustatuta.
- Hiriko merkataritza-jarduerarekin zuzeneko lotura duten merkataritza- eta zerbitzu-establezimenduen maniobra-funtsa hobetzea.
- Kontsumoan egon den moteltzea arintzea. Moteltze hori kontsumitzailearen egoera ekonomikoaren ondorioa da, bai eta kontsumoa beste sektore batzuetara bideratu izanaren ondorioa ere, une honetan aisia, hezkuntza edo etxebizitzaren sektoreetara bideratu baita kontsumoa, merkataritza-jardueraren aurretik eman baitzaie lehentasuna.





- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-exekuzioa eta erabilgarritasuna eta inpaktu soziala. (Dirulaguntzen programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo minorizatuen arteko berdintasuna sustatzeko eta desberdintasunak ezabatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Aurrekontu-exekuzioa:

4. kapitulua

Aurrekontua: 5.000.000 euro

Exekutaturik, azkenean: 4.704.290,00 euro

Erabilgarritasuna:

Tokiko saltoki txikiak suspertzea.

Eragina gizartean:

Hiri-inguruneak dinamizatzea; gizarteak onura bizi-kalitatean eta ongizatean lortuko du, gure herri eta hirietako kaleak merkataritza- eta gizarte-bizitzaz betetako biztanle-guneetan egituratzen badira, eta horrek eragin positiboa izango du gure herrialdeko ongizatearen eta gizarte-aurrerapenaren adierazleetan.

- 6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako merkataritza-enpresen kopurua.	4.500	5.222



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**«Funts Teknologikoa, Euskal Autonomia Erkidegoan merkataritza modernizatzeko programa».**  
**2023ko Funts Teknologikoa**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2023ko martxoaren 21ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez oinarriak ezarri eta deialdi publikoa egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza modernizatzeko laguntza-programaren laguntzetarako (Funts Teknologikoa), Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (Europar Batasunak finantzatua-Next GenerationEU). (2023ko martxoaren 27ko EHAA, 60. zk.).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

**Arau erregulatzaileraren argitalpena:**

2023ko martxoaren 21eko Agindua. (2023ko martxoaren 27ko EHAA, 60. zk.)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/03/2301478e.pdf>

**Onuradunen zerrenda argitara ematen duen ebazpena:** 2023ko azaroaren 28ko Agindua. (2023ko abenduaren 13ko EHAA, 236. zk.)

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

**Xedea eta helburua:**

«Funts teknologikoa» programaren helburua da lehiakortasuna eta modernizazioa babestea eta bultzatzea, merkataritza-sektorearen eraldaketa digitalaren eta jasangarriaren bidez, Funts Teknologikoa merkataritza modernizatzeko programaren esparruan.

Laguntza horien helburua da eduki teknologiko, berritzaile eta jasangarria duten proiektuen garapena finantzatzea. Plan eta proiektu horiek merkataritzako mikroenpresek eta enpresa txiki eta ertainek aurkeztuko dituzte, banaka edo elkarteen bidez. Plan eta proiektuok merkataritza-jardueraren kudeaketan eta negozio-ereduan eragin behar dute, enpresak kontsumo-ohitura berrietara, salmenta-modalitateetara, posizionamenduetara eta banaketara egokitzen direla bermatuz, eta lehiakorrago eta erresilienteago bihurtuz. Aurkez daitezkeen proiektuek ingurumen-helburuei «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa bete beharko dute, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamenduaren arabera.

**Hartzaileak:**

Bi laguntza-lerro ezarri dira, entitate onuradunen tipologiaren arabera:

- a) Merkataritza-sektoreko mikroenpresa eta enpresa txiki eta ertainetarako lerroa (aurrerantzean, ETEak), baldin eta negozioaren jarduera nagusia bat badator 2009ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren (EJSN-2009) 45., 46. edo 47. kodeetan jasotako jardueraren batekin —sailkapen hori 2009ko Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionala (EJSN-2009) onartzen duen apirilaren 13ko



475/2007 Errege Dekretuaren bidez onartu zen— eta egoitza soziala eta fiskala Euskal Autonomia Erkidegoan badute.

b) Diru irabazi-asmorik gabeko elkarteei bai eta zenbait merkataritza-elkartez osatutako asoziazio-entitateei edo legez eraturako federazio edo konfederazioei (aurrerantzean, elkarteak) zuzendutako lerroa, baldin eta gutxienez bazkideen % 40 biltzen badute eta 2009ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren (EJSN-2009) 45., 46. edo 47. kodeetan jasotako jardueraren bat egiten badute —sailkapen hori 2009ko Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionala (EJSN-2009) onartzen duen apirilaren 13ko 475/2007 Errege Dekretuaren bidez onartu zen— eta egoitza soziala eta fiskala Euskal Autonomia Erkidegoan badute.

Deialdiko diru-hornidura, guztira, 2.075.884 euro izan da, honela banakatuta:

- a) Merkataritza-sektoreko ETEentzako laguntza-lerroa: 1.660.707,20 euro.
- b) Elkarteentzako laguntza-lerroa: 415.176,80 euro.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-exekuzioa eta erabilgarritasuna eta inpaktu soziala. (Dirulaguntzen programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo minorizatuaren arteko berdintasuna sustatzeko eta desberdintasunak ezabatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere).

Ekitaldiko aurrekontua: 2.075.884 euro. Aurrekontu-exekuzioa: 2.019.207,94 euro.

Eskaerak: 531 (524 enpresa txiki eta ertain, eta 7 elkarte)

Emandako laguntzak: 123, guztiak enpresa txiki eta ertaineri; dirulaguntzen zenbatekoa: 2.019.207,94 euro. Elkarteen lerroan ez da laguntzarik eman.

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Laguntza jasoko duten merkataritzako ETEen kopurua	40	123
Laguntza jasoko duten merkataritza-elkarteen kopurua	5	0



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko laguntza-programa – TMS 2023**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2023ko maiatzaren 30ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Turismoa Merkaturatzeko eta Sustatzeko 2023. urteko laguntzak (TMS programa), eta horien deialdia iragartzen baita (2023ko ekainaren 6ko EHAA, 106. zk.).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/06/2302650e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da turismo-sektoreko enpresentzako laguntzak erregulatzea eta deitzea, produktu berriak garatu eta merkatura ditzaten, bai eta espiritu ekintzailea eta berrikuntzaren kultura sustatzea eta Euskadi Basque Country marka turistikoaren posizionamendua sendotzen eta ostatu-gauen kopurua handitzen laguntzen duten ekitaldiak babestea ere.

Helburu horrekin bat etorrira, honako xede hauek dituzten jarduketak lagunduko dira diruz:

- A) Euskadin garatutako turismo-produktuak sortzen, martxan jartzen, sustatzen eta merkaturatzen laguntzea.
- B) Euskadin egindako kultura-, gastronomia- eta kirol-ekitaldiei laguntzea, baldin eta Espainian eta nazioartean oihartzun mediatikoa badute eta Euskadiren irudia eta turismo-posizionamendua sendotzen eta ostatu-gauen kopurua handitzen laguntzen badute.

- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Guztira 96 eskaera egin ziren, eta horietatik 77k ( % 80,21) aldeko ebazpena jaso zuten.

Aldeko eskaeren % 74,03 turismo-produktuak sortzeko, abian jartzeko, sustatzeko eta merkaturatzeko proiektuei zegozkien (57), eta % 25,97 ekitaldiei (20).

Aurreikusitako zuzkidura ekonomikoa (984.000 euro) ez da nahikoa izan zenbatetsitako eskaerei erantzuteko, eta, beraz, Agindu arautzailearen 2. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, laguntza horretara bideratutako gehieneko zenbateko osoa erakunde onuradunen artean hainbanatu behar izan da. Hainbanaketa % 98,67koa izan da.

Datu garrantzitsuenak



	Aurkeztutako eskaerak	Aldeko eskaerak	%	Aurkeztutako gastua	Onartutako gastua	Kalkulatutako dirulaguntza	Ebatzitako dirulaguntza
ARABA	12	11	91,67	274.250,87	238.798,98	113.098,25	112.602,47
GIPUZKOA	45	39	86,67	1.426.036,80	968.882,97	462.300,78	460.274,90
BIZKAIA	39	27	69,23	1.214.284,45	959.913,56	421.871,55	420.022,90
GUZTIRA	96	77	80,21	2.914.572,12	2.167.595,51	997.270,58	992.900,27
						Hainbanaketa	98,67%

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazleen emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Turismo-sektoreko enpresei turismo-produktu berriak garatzen eta merkaturatzen laguntzea, eta, gainera, espiritu ekintzailea eta berrikuntzaren kultura sustatzea, turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko laguntza-programaren bidez.		
Onartutako proiektuen kopurua:	66	57
Eragindako inbertsioa	2.275.000	1.454.911,22
Turismo-eskaintzaren bikaintasuna sustatzea, helmugan dibertsifikazioari eta horien berezitasunari lotuta, bai eta Euskadiko turismoaren posizionamendua ere, turismo-proiektzioa duten ekitaldiei lagunduz		
Lagundutako ekitaldien kopurua	17	20
Eragindako inbertsioa	1.000.000	1.459.660,90



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzen programa –PTT 2023**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2023ko maiatzaren 9koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, 2023ko ekitaldirako lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzak arautzen eta iragartzen dituena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/05/2302255e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko eta pribatuentzako programa, erakunde horien helburuen eta/edo ahalmenen artean badago turismo-jarduera garatzea eta sustatzea, EAren turismo-lehiakortasuna sustatzeko, itzulgarriak ez diren dirulaguntzak baliatuta honako hauen moduko proiektuak egiteko:

- a) Turismoko lurralde-proiektuak helmugen erakargarritasuna hobetzen dutenak.
- b) Berrikuntzaren bidez eta turismo jasangarria eta arduratsua garatuz, helmugen kalitatea eta lehiakortasuna hobetuko duten proiektuak

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Lurralde	Aurkeztuak	Onartuak	Artxibatuta/ ukatuak	Aurkeztutako aurrekontua	Onartutako aurrekontua	Azken dirulaguntza
<b>Total Araba</b>	7	7		834.333,91 €	833.932,66 €	428.007,76 €
<b>Total Gipuzkoa</b>	15	13	2	1.844.216,21 €	1.479.045,23 €	716.224,58 €
<b>Total Bizkaia</b>	12	10	2	1.583.202,96 €	1.467.058,32 €	561.238,73 €
<b>TOTAL</b>	<b>34</b>	<b>30</b>	<b>4</b>	<b>4.261.753,08 €</b>	<b>3.780.036,21 €</b>	<b>1.705.471,07 €</b>

34 erakunde aurkeztu ziren deialdira, eta horietatik 4 ukatu ziren programaren baldintzak ez betetzeagatik; 2 erakunde onuraduna ez izateagatik eta 2 eskaeraren bikoiztasunagatik. Azkenik, erakunde onuradunak 30 izan ziren. Produktu motaren arabera (gastronomikoa, MICE, natura, kultura eta beste batzuk)



onartutako proiektuen kopurua 139 izan da, eta produktu turistikoak (zuzenekoak edo laguntza teknikoa) garatzeko eta kudeatzeko 20 pertsonak (7 gizonak eta 13 emakume) sortutako/mantendutako enplegua.

Bestalde, aipatu erakundeetatik 24ri laguntza eman zaio 14 langile kontratatzeko (6 gizonetako eta 8 emakumetako) haien eragin-eremuko enpresetan Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa.

Aurrekontu-betearazpena %92,69koa izan da.

#### **Erabilgarritasuna eta gizarte-inpaktua:**

Lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzak (PTT) ekonomia suspertzea eta jarduera turistikoa bultzatzea bilatzen du; izan ere, turismoa garrantzi handiko sektore ekonomikoa da Euskadirentzat, eta nabarmen laguntzen du gure herrialdearen aberastasun ekonomikoa eta kulturala. Zehazki, programa Euskadiko XII. Legegintzaldiko Gobernu Programaren 1. ardatz estrategikoaren (Oparotasuna) 7. jarduera-eremuan kokatzen da. Jarduketa-eremu horren barruan (turismo jasangarria eta bikaintasuneko), programak 41. eta 42. konpromisoak ditu ardatz. Lehenengo konpromisoaren barruan ("Euskadi-Basque Country helmuga turistiko seguru, iraunkor eta arduratsuan"), PTT laguntza-programak "Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa" ezartzea sustatzen eta babesten du, sektoreko eragile guztien atxikimendua eta turismo-sektorean Garapen Jasangarriko Helburuak aplikatzea sustatuz. Dokumentu horrek ekintzen eta konpromisoen katalogo bat jasotzen du, eta turismo-eragile guztiek eguneroko jardunean gizarte-erantzukizunak eta ingurumen- eta ekonomia-iraunkortasuna txertatzea du helburu. Era berean, ingurumen-jasangarritasuna ekintza zehatzen bidez babestuko da; bereziki, administrazioek eta sektoreak turismo-mugimenduen desestacionalizazioa eta deszentralizazioa bultzatuz eta natura-ondarea eta ekosistemak errespetatzen dituen ekoturismoa eta turismoa sustatuz.

Bestalde, 42. konpromisoaren barruan (Euskadi-Basque Country helmuga turistiko bikaina), programak turismo-eskaintzaren bikaintasuna bultzatzen du, eta eskaintza hori helmugan dibertsifikazioarekin eta berezitasunarekin lotuta dago, bai eta eskaintza gastronomikoarekin, enologikoarekin, landakoarekin, kirolarekin eta kulturalarekin, bai eta familia-turismoarekin, erosketetakoarekin, industriakoarekin, ongizatekoarekin eta negoziokoarekin ere. Oraingo ekitaldian, eskaintza horri gehitu behar zaio senior turismoarekin eta LGBTQ+ekin zerikusia duen eskaintza.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazleen emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Gure ingurunearen eta Euskadiren ezaugarri bereizgarriak oinarri dituzten turismo-produktuak sortu, garatu, sustatu eta merkaturatzea bultzatzea:		
Onartutako eskabide kopurua	30	30
Onartutako proiektu kopurua, produktu motaren arabera (gastronomia, bilerak (MICE), natura, kultura eta bestelakoak)	90	125
(zuzenean edo laguntza teknikoa)	35	20



Helmugatan kalitatezko programak ezartzen laguntzea: Smart Business, Europako Etiketa Ekologikoa eta abar		
Programak ezartzeko lagundutako destinoen kopurua	23	23
Prestatutako enpresen kopurua	700	600
sortu/mantendutako enplegua	23	14





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Ekintzailtzarako eta turismo-enpresen lehiakortasunaren hobekuntzarako laguntzak - EMET 2023**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2023ko martxoaren 28koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, turismo-arloko ekintzailtza laguntzeko eta turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzeko 2023ko ekitaldirako laguntzak arautu eta horien deialdia egiten duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/04/2301673e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen helburua toki-garapenari lagunduko dioten turismo-negozio berriak sortzen laguntzeko oinarriak ezartzea da, baita turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzera bideratutako jarduketak ere, guztia ere berrikuntza teknologikoaren babesarekin; halaber, haien kalitatea hobetu nahi da eta turismo jasangarriko eta eskuragarriko eredu baterantz bideratu, baldin eta diruz laguntzeko honako ildo hauetan tokirik badute:

- turismo-negozioko eredu berriak sortzea;
- turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

ILDOA	Lurralde	Aurkeztutako eskaerak	Artxibatuak	Ukatuak, araudia ez betetzeagatik	Onetsiak	
Ekintzailtza	Araba	5	1	0	4	
	Gipuzkoa	16	3	6	7	
	Bizkaia	21	3	5	13	
	<b>GUZTIRA</b>	<b>42</b>	<b>7</b>	<b>11</b>	<b>24</b>	
Enpresen lehiakortasuna hobetzea	Araba	13	0	1	12	
	Gipuzkoa	60	3	17	40	
	Bizkaia	89	9	15	65	
	<b>GUZTIRA</b>	<b>162</b>	<b>12</b>	<b>33</b>	<b>117</b>	
	<b>GUZTIRA</b>	<b>204</b>	<b>19</b>	<b>44</b>	<b>141</b>	



ILDOA	Lurralde	Aurkeztutako inbertsioa	Onartutako inbertsioa	Dirulaguntza teorikoa	Azken dirulaguntza
Ekintzailletza	Araba	2.068.875,03	1.085.568,18	68.720,45	<b>68.720,45</b>
	Bizkaia	2.667.437,90	1.250.598,32	106.029,93	<b>106.029,93</b>
	Gipuzkoa	2.158.874,23	1.039.088,03	187.409,01	<b>187.409,01</b>
	<b>GUZTIRA</b>	<b>6.895.187,16</b>	<b>3.375.254,53</b>	<b>362.159,39</b>	<b>362.159,39</b>
Enpresen lehiakortasuna hobetzea	Araba	548.100,32	343.587,25	88.333,57	<b>88.333,57</b>
	Bizkaia	1.748.343,79	881.192,15	239.613,25	<b>239.613,25</b>
	Gipuzkoa	2.579.847,17	1.484.112,74	370.918,73	<b>370.918,73</b>
	<b>GUZTIRA</b>	<b>4.876.291,28</b>	<b>2.708.892,14</b>	<b>698.865,55</b>	<b>698.865,55</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>11.771.478,44</b>	<b>6.084.146,67</b>	<b>1.061.024,94</b>	<b>1.061.024,94</b>	

#### GENEROARI ETA ENPLEGUARI BURUZKO DATUAK

LABURPENA	GÉNEROA ETA ENPLEGUA			DIRULAGUNTZA		
	ENPRESAK	PLANTILLAK	Aukeztuta	Onartuta	Dirulaguntza teorikoa	Azken dirulaguntza
ILDOA	Nº	GUZTIRA				
Ekintzailletza	24	40	3.717.192,55 €	3.375.254,53 €	362.159,39 €	362.159,39 €
Enpresen lehiakortasuna hobetzea	117	2.003	3.727.938,37 €	2.708.892,14 €	698.865,55 €	698.865,55 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>141</b>	<b>2.043</b>	<b>7.445.130,92 €</b>	<b>6.084.146,67 €</b>	<b>1.061.024,94 €</b>	<b>1.061.024,94 €</b>

2023ko deialdian 204 eskaera aurkeztu ziren: 42 ekintzailletza-lerrorako eta 162 enpresen lehiakortasuna hobetzeko. Eskaerak aztertu ondoren, 141 baietsi ziren.

Aurrekontu-betearazpena %82,3koa izan da.

#### Erabilgarritasunari eta gizarte-inpaktuari dagokienez:

I. eranskinean: Negozio turistiko berriak sortzeko ekintzailletzarako laguntzen ildoak.

3. puntuak hau adierazten du:

Honako turismo-negozio hauek baloratuko dira:

- EAEn enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sortzen dutenak, emakumeen ekintzailletza eta kontratazioa bultzatuz, enpleguan genero-aldea murriztearren.



Aurkeztutako proiektuak baloratzeko irizpideak eta laguntzen aginduaren III. eranskinean jasotako haztapen-faktoreak honako hauek dira:

1. irizpidea. Enpresaren eta kontsumitzailearen aurreko gizarte-erantzukizuna. Pertsonen eta erakundeen berdintasunaren arloko konpromisoa bultzatuko da, % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila duten emakumeak eta gizonak kontratatuz, bai eta kontsumitzaileekiko erantzukizuna ere, azken hori Euskadiko Kontsumoko Arbitraje Sistemara atxikitzea dela ulertuta.

Ekintzailtza-lerrorako irizpide espezifikoak (I. eranskina):

Autoenplegua sortzea, emakumeen enplegua bultzatuz.

Soldatapeko enplegua sortzea, kontratazio mugagabea eta emakumeena bultzatuz.

Bestalde, I. eranskineko 4. puntuan honako hau ezartzen da:

Negozio berriek baliabide naturalak eraginkortasunez kudeatzen, ingurumena zaintzen eta klima-aldaketari aurre egiten lagunduko duten neurriak hartu beharko dituzte. Neurri horiek eskabidearekin batera doan proiektua baloratzeko azalpen-memorian zehaztu beharko dira. Informazio hori ez badago, laguntza ukatuko egingo da.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazleen emaitzak

<u>Indicador</u>	<u>Previsión</u>	<u>Resultado</u>
Ekintzailtza eta ekimen berrien ezarpena bultzatzea:		
Diruz lagundutako enpresen kopurua	15	24
Sortu/mantendutako enplegua	50	40
Eragindako inbertsioa (diruz lagundutako proiektuetatik)	1.800.000	3.375.254,5
Egungo turismo-enpresak eskarien baldintza berrietara egokitzen eta moldatzen laguntzea:		
Diruz lagundutako enpresen kopurua	90	117
Sortu/mantendutako enplegua	1.000	2.003
Eragindako inbertsioa (diruz lagundutako proiektuetatik)	2.000.000	2.708.892,1